


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2019KO URTARRILA

Euskal AEko industri jarduera %0,7 gehitu zen 2019ko urtarrilean

Industri produkzioaren indizeak tasa positiboak ematen ditu atzerapausoak eduki ondoan bi hilabetez

Eustaten arabera, 2019ko urtarrilean %0,7 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2018ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %3,1 igo zen Euskal AEko industri produkzioa 2018ko abenduarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



2019ko urtarrileko indizearen bilakaerak 2018ko urtarrilaren aldean tasa positiboak ematen ditu *Ekipoko ondasunentzat*, %1,1eko igoerarekin, eta *Bitarteko ondasunentzat*, %1,0koarekin. *Energia*, aldiz, %0,8 jaitsi da, nola halaber *Kontsumoko ondasunak*, %0,1 jaitsi direnak, zeren *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan* %5,0ko jaitsiera gertatu baita; *Ez-iraunkorrak*, aldiz, %2,0 igo dira.

2018ko abenduaren aldean, 2019ko urtarrileko hil artekoan zeinu ezberdinak daude industri sektore handietan. *Ekipoko ondasunak* %7,3 igo dira eta *Bitarteko ondasunak* %3,2. *Energian* ez da aldakuntzarik, %0,0. Bestalde, *Kontsumoko ondasunak*, oro har, %1,3 jaitsi dira, zeren *Ez-iraunkorrak* %2,0 jaitsi diren eta *Iraunkorrak* %0,9 hazi.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak urte artean 2019ko urtarrilean hauek izan dituzte: *Material eta ekipo elektrikoa*,

%8,8rekin; *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, %5,9rekin; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %3,4rekin.

Kontrako norabidean jaitsierak urte artean hauek izan dituzte: *Makineria eta ekipoa*, %2,7ko jaitsierarekin; *Kautxu eta plastikoak*, %1,5eko jaitsierarekin; eta *Garraio-materiala*, %1,4koarekin.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	2,5
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	3,4
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,5
13 - Makineria eta tresneria	-2,7
14 - Garraio-materiala	-1,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	8,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	5,9

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, urtarrileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban, non %2,5 jaitsi den. Bizkaian %2,5 igo da; Gipuzkoan, %0,7.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Urtarrila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urt2019 / Urt2018	A(Urt2019) / A(Urt2018)(*)	Urt2019 / Abe2018	Abe2018 / Aza2018
Indize orokorra				
Euskal AE	0,7	0,7	3,1	-1,9
Araba/Álava	-2,5	-2,5	7,1	-2,7
Bizkaia	2,5	2,5	3,4	-3,2
Gipuzkoa	0,7	0,7	0,7	-0,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,1	-0,1	-1,3	-0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-5,0	-5,0	0,9	-8,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,0	2,0	-2,0	2,1
Ekipo-ondasunak	1,1	1,1	7,3	-2,0
Bitarteko ondasunak	1,0	1,0	3,2	-1,7
Energia	-0,8	-0,8	0,0	-2,2

(*) 2019ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62